



# HAUR ETA GAZTE LITERATURA ESKOLAN

## IKASTARO OSAGARRIAREN AURKEZPENA ETA PROGRAMA

- **ANTOLATZAILEAK**

Galtzagorri Elkarteak eta Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila (UPV/EHU), Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundua.

- **ARDURADUN AKADEMIKOAK**

Asun Agiriano (Galtzagorri Elkarteak) eta Ibon Egaña (UPV/EHU)

- **AURKEZPENA**

Irakurketaren inguruan gaurko gizartean eta, bereziki, hezkuntza-esparruan dagoen kezka bati erantzuteko asmoz sortu da ikastaro hau. Zehazki, irakurketa literarioak eskoletan duen lekua hobetzeko, eta irakurketan bitartekari diren irakasle edo irakaslegaien formazio literarioa aberasteko eskaintza egin nahi dugu ikastaro honen bidez.

Izan ere, haur eta gazteak irakurketa literarioan trebatuko badira, ezinbestekoa da irakasleen eta irakasle izango direnen gaitasun literarioan sakontzea. Era berean, funtsezkoa da hezkuntzako profesionalei haur eta gazte literaturaren inguruko ezagutza eta baliabideak eskura jartzea, ondoren beren eguneroko lanean erabil ditzaten.

UPV/EHU-ko “Etengabeko prestakuntzako ikastaroen” eskaintzaren barruan eskainiko da ikastaroa, 2020ko urtarrilean hasita.

- **IKASTAROAREN HARTZAILEAK**

Bi hartzaile-mota ditu ikastaro honek buruan:

1. Unibertsitateko ikasleak, bereziki hezkuntza ikasketak egiten ari diren etorkizuneko maisu-maistrak, hots, Lehen Hezkuntza zein Haur Hezkuntza Graduak egiten ari diren ikasleak. Era berean, hezkuntzarekin zerikusia duten beste titulazioetako ikasleak (Pedagogia, Gizarte Hezkuntza...) eta giza zientzietako ikasleak ere (Filologiak, Arte Ederrak) beren formazioa aberastuko dute ikastaro honekin.



2. Irakaskuntzan diharduten maisu-maistrak eta hezkuntzaren munduko profesionalak.

3. Gaian interesa duten bestelako pertsonak.

- **HOMOLOGAZIOA**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren homologazioa eskatuta dago. Onarpenaren zain.

- **EBALUAZIOA**

Ikastaroaren ziurtagiria eskuratzeko, bi baldintza bete beharko dituzte ikasleek:

- Saioen % 80etara etortzea.
- Amaierako lan bat egitea: HGLko liburu baten inguruko proposamen didaktikoa (5 orrialde)
- On-line egin beharreko jarduerak burutzea.

- **IRAKASKUNTZA-MODALITATEA**

Ikastaro honek 75 orduko iraupena izango du, 5 ikasgaitan banatuta. Ikasgai bakoitzak 15 orduko balioa izango du, horietatik 9 presentzialak izango dira, eta 6 ez-presentzialak, on-line modalitatean egitekoak.

Saio presentzialak 3 ordukoak izango dira, eta ostegunetan emango dira, arratsaldeko 17etatik 20etara, Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean. Saio presentzial bakoitza 2 orduko irakaskuntza ez-presentzialarekin osatuko da.

- **IZEN-EMATEA ETA MATRIKULA**

Ikastaroan izena emateko epea zabalik egongo da **2019ko abenduaren 9tik 2020ko urtarrilaren 15era**. Horretarako, izen-emate orria beteta eta aurkezpen-gutun laburra (gehienez 10 lerrokoa) bidaliko da [administrazioa@galtzagorri.eus](mailto:administrazioa@galtzagorri.eus) helbidera. (Ikus [galtzagorri.eus](http://galtzagorri.eus) web orria)

Ikastaroan onartuak diren ikasleei e-mailez jakinaraziko zaie eta matrikula egingo dute **2020ko urtarrilaren 20tik 24ra**.



- UPV/EHU-ko ikasleek beka izango dituzte eskuragarri. UPV/EHUn matrikulatutako ikasleek **doan** izango dute matrikula, baina e-mailez berretsi beharko dute ikastaroan parte hartzeko konpromisoa.
- UPV/EHU-koak ez diren ikasleek **56,50** euro ordainduko dituzte zehaztuko zaien kontu korrontean (52,5 euro matrikula + 4 euro aseguru).

• **IKASKETA-PLANA**

<b>1. IRAKASGAIA: Haur eta Gazte Literatura: sarrera. Definizioa, historia eta egungo egoera</b>	
GAITASUN ESPEZIFIKOAK:	<ul style="list-style-type: none"><li>• Haur eta gazte literaturaren oinarriko ezagutzak eskuratzea: definizioa, historia.</li><li>• Haur eta gazte literaturak haur eta nerabeen garapen psikologikoan egiten duen ekarpenaz jabetzea.</li><li>• Gaur egungo Haur eta gazte literaturaren sistema ezagutzea eta baliabideak erabiltzeko gai izatea.</li></ul>
IRAKASLEAK	<ul style="list-style-type: none"><li>• Xabier Etxaniz Erle</li><li>• Juan Carlos Alonso</li></ul>
IRAKASKUNTZA-ORDUAK	<ul style="list-style-type: none"><li>• 9 presentzial eta 4 ez-presentzial</li></ul>

<b>2. IRAKASGAIA: Irakurketa literarioaren testuinguruak: gizarte elebidunean irakurtzea eta irakurketaren lekua ikastetxean</b>	
GAITASUN ESPEZIFIKOAK:	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren inguruko kontzientzia hartzea</li><li>2. Euskara bigarren hizkuntza gisa duten ikasleen irakurketa-gaitasunaren garapenaz jabetzea</li><li>3. Irakurketa Planak egiteko ezagutzak eskuratzea: eskolan irakurketak duen lekuaz hausnartzea, eta irakurketa-mota desberdinez jabetzea</li><li>4. Irakurzaletasuna sustatzeko printzipioak identifikatzea eta estrategia egokiak diseinatzeko gai izatea</li></ol>
IRAKASLEAK	<ul style="list-style-type: none"><li>• Paula Kasares</li><li>• Ibon Egaña</li><li>• Alex Gurrutxaga</li></ul>
IRAKASKUNTZA-ORDUAK	<ul style="list-style-type: none"><li>• 9 presentzial eta 4 ez-presentzial</li></ul>



### 3. IRAKASGAIA: Haur eta Gazte Literatura generoak ikasgelan (I) : ahozko generoak, poesia eta antzerkia

GAITASUN ESPEZIFIKOAK:	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Ahozko ipuin kontaketak egiteko trebetasunak eskuratzea.</li><li>2. Ahozko tradizioko poesia eta tradizio idatziko poesia ezagutu eta ikasleekin lantzeko trebetasunak eskuratzea.</li><li>3. Haur antzerkia genero gisa ezagutu eta dramatizazioa lantzeko trebetasunak eskuratzea.</li></ol>
IRAKASLEAK	<ul style="list-style-type: none"><li>• Intza Alkain</li><li>• Yolanda Arrieta</li></ul>
IRAKASKUNTZA-ORDUAK	<ul style="list-style-type: none"><li>• 9 presentzial eta 4 ez-presentzial</li></ul>

### 4. IRAKASGAIA: HGL generoak ikasgelan (II): genero narratiboak

GAITASUN ESPEZIFIKOAK:	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Gaur egungo euskal HGL-ko narratibaren joera nagusiak ezagutzea.</li><li>2. Ikasleekin irakurtzeko liburu egokienak aukeratzeko irizpide literarioak eskuratzea.</li><li>3. HGL-ko liburuak hurrekin lantzeko estrategia didaktiko egokiak ezagutu eta erabiltzeko trebetasunak eskuratzea.</li><li>4. Ikasleekin narrazio testuen sorkuntza lantzeko trebetasunak eskuratzea.</li></ol>
IRAKASLEAK	<ul style="list-style-type: none"><li>• Imanol Mercero</li><li>• Mariasun Landa</li><li>• Intza Alkain</li></ul>
IRAKASKUNTZA-ORDUAK	<ul style="list-style-type: none"><li>• 9 presentzial eta 4 ez-presentzial</li></ul>

### 5. IRAKASGAIA: HGLko generoak ikasgelan (III) genero ikonografikoak. Albuma, ilustrazioa eta komikia

GAITASUN ESPEZIFIKOAK:	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Haur literaturan irudigintzak eta ilustrazioak egiten duen ekarpenaz jabetzea.</li><li>2. Album ilustratuak eta komikiak dituzten ezaugarriak identifikatzea.</li><li>3. Album ilustratuetatik abiatuta proiektuak diseinatzeko trebetasunak eskuratzea.</li><li>4. Komikiak eskoletan lantzeko trebetasunak eskuratzea.</li></ol>
IRAKASLEAK	<ul style="list-style-type: none"><li>• Karla Fernandez de Gamboa</li><li>• Amaia Hennebutte</li><li>• Iratxe Retolaza</li><li>• Amaia Serrano</li></ul>
IRAKASKUNTZA-ORDUAK	<ul style="list-style-type: none"><li>• 9 presentzial eta 4 ez-presentzial</li></ul>



- **EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA**

Saio guztiak arratsaldeko **17etatik 20etara** egingo dira, Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean.

<b>1. Haur eta Gazte Literaturaz sarrera. Definizioa, historia eta egungo egoera.</b>		
	1. saioa	Urtarrilak 29
	2. saioa	Otsailak 6
	3. saioa	Otsailak 13
<b>2. Irakurketa literarioaren testuinguruak: gizarte elebidunean irakurtzea eta irakurketaren lekua ikastetxean</b>		
	1. saioa	Otsailak 20
	2. saioa	Otsailak 27
	3. saioa	Martxoak 5
<b>3. HGL generoak ikasgelan (I) : ahozko generoak, poesia eta antzerkia</b>		
	1. saioa	Martxoak 12
	2. saioa	Martxoak 26
	3. saioa	Apirilak 2
<b>4. HGL generoak ikasgelan (II): genero narratiboak</b>		
	1. saioa	Apirilak 23
	2. saioa	Apirilak 30
	3. saioa	Maiatzak 7
<b>5. HGLko generoak ikasgelan (III) genero ikonografikoak. Albuma, ilustrazioa eta komikia</b>		
	1. saioa	Maiatzak 14
	2. saioa	Maiatzak 21
	3. saioa	Maiatzak 28